


Monika DEL VALLE | ARGAZKI PRESS

**Itxura hori dute Bizkarrak gaur egun prestatzen dituen mokotsek.**

Bizkarra okindegiek mokotsak egiten dituzte egunotan. Aitabitxiek Pazko astean oparitzen ohi zituzten gozokiak dira, eta erraz ezberdin daitezke, arrautza baitute osagai nagusi.

# MOKOTSA, SASOIKO ETA TRADIZIOKO POSTREA

Bizkarra okindegiek mokotsen tradizioa berreskuratzen dute urtero sasoi honetan. Izan ere, Pazko astean aitabitxiek oparitzen zituzten gozokiak dira mokotsak. Postre sinplea da, arrautza du erdian eta apaindura ugari. Arratia aldean izen horrekin ezagutzen badira ere, beste leku askotan opila izenarekin ezagutzen dituzte.

Bizkaian dauden Bizkarra okindegiek urteko sasoi bakoitzeko postreak egiteko ohitura dute. Duela hilabete pare bat txintxorten garaia iragarri zuten, txerrikiekin egindako elikagai hori garaikoa zelako. Orain, Pazko astearekin bat eginez, mokots edo opilen garaia da, izen biekin ezagutzen baita arrautza osagai nagusia duen postrea.

Urteekin tradizioa galtzen joan bada ere, Bizkarrako okinek azaldu dutenez, ohitura zaharra zen egunotan aitabitxiek semealaba bitxiei mokotsak oparitzea. Oparia maitasun harreman horren seinale zen.

Postrearen jatorria, bestalde, ez dago hain argi. Batzuen ustez, IX. mendean elizak arrautzarik jateko debekua ezarri zuen garizumak irauten zuen bitartean. Postreak arrautza zuenez, berrogeialdiaren bukaeran kontsumoak gora egiten zuen, eta urteetan garai horretako postre ezagun bilakatu da Euskal Herriko herrialde batzuetan, behintzat.

Prestaketari dagokionez, egiteko erraza dela diote Bizkarrakoek. Irina, gurina, azukrea, gatza, esnea eta legamia dira opil orea erabiltzen diren osagaiak. Osagai horiek pasta sendoa eta fina osatu arte nahasten direla azaldu dute.

Mokots bakoitza ore bola batekin osatzen da, eta, ondoren, bolari hiru mozketa egiten zaizkio. Era horretara, itxura originaleko hiru pikuak azaltzen dira. Hori azaldu dute okinek. Orea ordu bitan uzten da altxatzen, eta horren ostean labean sartzen dute su gogorrean eta hamar minututan.

*«Batzuen ustez, mokotsen kontsumoak garizumaren debekuekin du zerikusia»*

Txokolatearen unea da labearen ondokoa. Izan ere, txokolatez betetzen dituzte gaurko mokotsak. Postrearen kanpoko itxura bereziki zaintzen dute Bizkarran.

### ITXURA KOLORETSUA

Mokotsen aurkezpena borobiltzeko, kolorez betetzen dituzte gozokiak. Kanpotik ere txokolatearekin bainatzen dituztenez, gainetik txokolatezko eta karameluzko birutak botatzen dizkiete. Hori bai, arrautza erdi-erdian agertu behar dela nabarmendu dute.

Arratian aski ezagunak dira mokotsak, beste zonalde batzuetan opilak izenarekin ezagutzen dituzte. Izen batekin edo bestearekin, aukera paregabea da gozokia dastatzeko. •

**GARA**

BILBO

# Detenido por agredir a su esposa embarazada

GARA

**BILBO**

La Ertzaintza arrestó durante la madrugada del domingo en Bilbo a un hombre de 28 años acusado de agredir a su mujer que se encontraba en avanzado estado de gestación.

Los hechos tuvieron lugar minutos después de las cuatro de la madrugada del domingo en una discoteca ubicada en el barrio bilbaino de Deustua. La pareja se encontraba en el interior de un local cuando inició una discusión motivada por un arranque de celos.

En ese momento, el hombre agarró del brazo a la mujer, que estaba embarazada de ocho meses, y acto seguido, la empujó de forma violenta contra la pared.

Como consecuencia de la agresión, la víctima sufrió una lesión en el labio, de la cual fue atendida en un centro sanitario donde se expidió el correspondiente parte de lesiones.

Los agentes se dirigieron al local donde ocurrieron los hechos y encontraron a la mujer herida en el exterior. Junto a ella se encontraba su agresor que fue arrestado como presunto autor de un delito de violencia de género.

La víctima y el agresor estaban casados y ella se encontraba en su octavo mes de gestación. Con posterioridad se pudo saber que la mujer había sido víctima de agresiones por parte de su marido en otras dos ocasiones durante el transcurso del embarazo.

## Arrestan a un hombre acusado de agresión sexual en Bilbo

GARA

**BILBO**

Un hombre de 30 años fue detenido el sábado en Bilbo acusado de agredir sexualmente a una mujer. El agresor abordó por la espalda a la víctima para realizarle diversos tocamientos en diferentes partes de su cuerpo antes de darse a la fuga por la resistencia que opuso la mujer.

La detención se realizó poco después de que se produjeran los hechos y en consecuencia, se pudo comprobar que el hombre tenía antecedentes por delitos similares: Dos imputaciones por abusos y tocamientos, además de otras dos detenciones por sendos delitos de agresión sexual. Como consecuencia de las dos últimas agresiones el acusado había estado en prisión.

La agresión sucedió pocos minutos antes de las doce del mediodía del sábado en las rampas de Uribitarte. Después del forcejeo, el joven huyó en dirección hacia los jardines de Albia.

La detención se produjo por la tarde en la calle Juan de Garay al coincidir el sospechoso con la descripción de la mujer y presentar varios arañazos, fruto del forcejeo.



Jesús DIGES | EFE

**BAJADA DEL ANGEL.** Miles de personas se congregaron un año más ante el consistorio de Tutera para presenciar la Bajada del Angel. Alvaro Beamonte Iturre, de 8 años, fue el encargado de protagonizar el acto al cruzar por el aire la plaza de los Fueros hasta llegar a la altura de la Virgen.